

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

EBAZPENA, 2019KO ABENDUAREN 13KOA, HABEREN ZUZENDARI NAGUSIARENA, 2018-2019 IKASTURTEAN HABEREN A1, A2, B1 ETA B2 EUSKARA-MAILAK EDO HORIEN BALIOKIDEAK EGIAZTATU DITUZTEN IKASLEEI DIRULAGUNTZAK EMATEN DIZKIENA ETA 2019KO AZAROAREN 29KO EBAZPENA ZUZENTZEKO DENA.

GERTAKARIAK

I.- HABEren zuzendari nagusiak, 2019ko abuztuaren 28ko Ebazpenaren bidez 2018-2019 ikasturtean HABEren euskara-mailak edo horien baliokideak gainditu zituzten ikasleei zuzendutako dirulaguntzen deialdia egin eta baldintzak arautu eta aitortzeko prozedura onartu zuen.

II.- Ebazpen horren 7. artikulua zioenari jarraituz, eta bere 6. artikulua finkatutako irizpideak aplikatu ondoren, HABEren zuzendari nagusiak, 2019ko azaroaren 29ko Ebazpenaren bidez erabaki zuen dirulaguntza-eskariak onartzea (I. Eranskina) edota baztertea (II. Eranskina), onartutako eskari bakoitzari zegokion dirulaguntza adieraziz, eta baztertutakoen arrazoiak zehaztuz.

III.- 2019ko azaroaren 29ko Ebazpenaren bidez, ordea, aipatu dirulaguntza-deialdiaren baitan aurkeztutako hainbat eskarien gaineko erabakirik ez zen hartu, espediente horien dokumentazioaren azterketa tekniko gabe zegoelako edota aurkeztutako dokumentazioaren zuzenketa-prozesua amaitu gabe zutelako.

IV.- Halaber, 2019ko azaroaren 29ko Ebazpenaren bidez esleitu eta dirulaguntza ukatua duten hainbat eskarien kasuan baieztatu ahal izan da, HABEk akatsa egin duela eskatzaileak berak aurkeztutako agiriak kontuan hartu eta aztertzerakoan.

LEGEZKO OINARRIAK

Lehena.- Urriaren 1eko Herri Administrazioen administrazio-prozedura erkidearen 39/2015 Legeak, 109.2 artikuluan ahalbidetzen da Administrazioak bere ekimenean sortutako akatsak zuzentzeko aukera. Hala dio xedapen horrek:

"Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunak eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".

Bigarrena.- Errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak zuzentzeko eskumenari dagokionez, zuzendu beharreko ekintza bera gauzatu duen organori dagokio.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Horrenbestez,

EBAZTEN DUT

Lehena.- HABEren A1, A2, B1 eta B2 euskara-mailak edo horien baliokideak egiaztatu I. eranskinean jasotzen diren ikasleei adierazitako dirulaguntza ematea. Aipatu laguntza-kopuruak finkatzeko kontuan hartu dira eskatzaile bakoitzak egiaztatutako mailak, bakoitzak ordaindu eta egiaztatu dituen matrikula-kopuruak, HABEk aurreko urteetako deialdien bitartez diruz lagundutako ikastaroak eta beste Herri Administrazioetatik ikasleak eskuratu dituen dirulaguntzak, azken hauek deialdiaren 9. Artikuluak dioenari begira.

Bigarrena.- II. eranskinean aipatzen diren ikasleei dirulaguntzarik ez ematea, bertan azaltzen diren arrazoiak direla eta.

Hirugarrena.- Zuzentzea zuzendaritza nagusi honen 2019ko azaroaren 29ko Ebazpena, A1, A2, B1 eta B2 euskara-mailak edo horien baliokideak egiaztatu dituzten ikasleei dirulaguntzak onartzekoa, eta, ondorioz, III. eranskinean jasotzen diren ikasleei bertan adierazitako dirulaguntza ematea eta.

Laugarrena.- Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoko iragarki-taulan (<http://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>) argitara emanez eta, emandako dirulaguntzen publizitateari dagokionez, HABEren egoitzetako iragarki-tauletan erantsiz eta HABEren web orrialdean argitaratuz.

Bosgarrena.- Ebazpen honetako I. eta III. eranskinetan esleitutako laguntzak ordaintzeko agindua ematea.

Seigarrena.- Ebazpen honen aurka, administrazio bidea agortzen ez duenez, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaiokete Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango dute Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Donostian, 2019ko abenduaren 13an.



HABE
Helduen
Alfabetatze eta
Berreuskalduntzerako
Erakundea

HABEren zuzendari nagusia,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.